

SABERERA-ENTRADA
LASARTE-ORIAKO UDALA
2017 URT. ENE. 04
N.º Zkia II

Lasarte Oriako Osoko Udal Batzarraren Adierazpen
Instituzionala elkartasuna eta babesa adierazteko Mikel Zuloaga eta Begoña Huarte ekintzaileei.

Honako idazkia biltzaile bera tramitazio
..... Saltera
..... Mikel Zuloaga eta Begoña Huarte ekintzaileei
..... para su trámite

Pasa den abenduaren 27an Greziako Igoumenitsako kaian Mikel Zuloaga eta Begoña Huarte, 8 pertsona errefuxiatu Euskal Herrira ekartzen saiatzen ari zirela, Greziako poliziak atxilotu zituen.

2017 URT. ENE. 04
LASARTE-ORIA
UDAL BATZARRA

Bi ekintzaileak, errefuxiatuek jasaten duten egoeraren aurrean Europako estatuak duten jarrera lotsagarria salatzeke asmoz, desobedientzia zibil ekintza baten bidez, euren kabuz 8 pertsonen osaturiko errefuxiatu talde bat Euskal Herrira ekartzea erabaki zuten. Horregatik atxilotuak izan dira eta epaiketa bati aurre egin beharko diote.

Hori hala izanik, Lasarte-Oriako Osoko Udal Batzarrak, honako erabaki instituzionala onartzen du:

1. Udal honek Mikel Zuloaga eta Begoña Huarte ekintzaileen atxiloketa eta auziperatzea salatzen du.
2. Udal honek Mikel Zuloaga eta Begoña Huarteri bere babesa eta elkartasuna adierazten die.
3. Udal honek, berriz ere Europar Batasunak zein Espainiako Estatuak errefuxiatuen aferan izaten ari diren jarrera salatu nahi du.

Lasarte-Oriako EHBildu